

Jul Bolinagaren kantutegia oholtza gainean


Noiz: Ekainak 27. Arrasate (Monterron),
21:30ean. **Sarrera:** Doan. **Antolatzaileak:**
Jul Lagunak eta Arrasateko Udala.

JUL BOLINAGA arrasatearra oso gaztetatik hasi zen musikan eta iazko azaroan agertoki baten gainean bihotzeko batek eraman zuen artean, hala jarraitu zuen. Horregatik, lagun, senide, musikari kide eta bidaideek haren omenez antolatu duten kontzertuari Amaierarik gabeko ibilbidea izena jarri diote. Are gehiago, kontuan hartuta bere musika ondareak eta bere izateko moduak oraindik bizi-bizirik jarraitzen dutela, JULHN-E27 matrikula ere sortu dute, inoiz geldituko ez den ibilgailuarena.

Julek bere ibilbide konprometitua eta mundua aldatzeko zuen grina musikarekin azaltzen zuen. Hala, oso biografia luzea du: 1970eko hamarkada bukaeran, Txerra anaiarekin eta lagun batzuekin batera Doble Cero punk taldea sortu zuen; gerora, aldaketa batzuk medio, talde horrek RIP izena hartu zuen eta berorrek diskografia laburra badu ere, izugarritzko eragina izan zuen Euskal Herriko, Espainiako Estatuko eta beste atzerrietako punk giroan. Hainbeste, oraindik ere Euskal Herrian eta harago genero horretan izan den talde eraginkorrenetako bat izanik, belaunaldi belaunaldi erreferentzia izaten jarraitzen duela. Era berean, 1980ko hamarkadan taldeak idatzitako hitz gordinek, tamalez, gaurkotasun handia izaten jarraitzen dute.

RIP taldeak ibilera gorabeheratsua izan zuen agertokietako presentziari dagokionez bigarren milurtekoan Karlos *Mahoma* Agirreurretaren heriotzarekin batera taldea betirako lurperatu zuten arte –aurretik 1990eko hamarkada bukaeran Eduardo Mancebo *Portu* baxu jotzailea hil zen–, baina RIPen etenaldi horietan guztietan Julek ez zion inoiz musikari egiteari utzi. Honako taldeetan parte hartu zuen, besteak beste: Diputación Coral, Los Pitxones, Txapelpunk, Teclas, The Kagas, The Meas, The Magnificent Seven, Karrocerias Betoño, Piztu Punk, Gipsy Voodoo Rednecks eta azken urtean The Potes.

Arrasateko lagunak bihotzekoak eraman eta hiru egunetara agur ekitaldi hunkigarria egin zioten Jul lagunari, eta jende asko batu zen bertan. Baina haren heriotzak herrian eta herritik kanpo eragindako kolpeak eta jasotako elkartasun mezuek animatuta Arrasateko musikaria gogoratzeko ekimen gehiago egitea erabaki zuten; hala sortu zen Jul



Lagunak ekimena. Eta lehen helburua izan zen musika egiteko moduagatik eta izateko era apalagatik iraganeko, egungo eta etorkizuneko hainbat gazteengan halako arrastoa utzi duen lagunaren omenezko kontzertu erraldoia egitea.

Arrasateko Udalarekin harremanetan jarri eta bien artean kontzertu-omenaldi berezia antolatu dute ekainaren 27rako Arrasateko Monterron parkean, eta aurtengo herriko San Juan jaiak luzatuz. Emanaldi berezi honetan Julen kantutegiaren lagin handi bat ikusi eta entzun ahal izango da, ezinezkoa baitzen kontzertu bakarrean guztia jasotzea. Besteak beste, RIP, The Potes, Karrocerias Betoño, Teclas eta Piztu Punk taldeen kantuak izango dira presente. Eta horretarako, Julek bidaide izan dituen belaunaldi ugarietako hainbat eta hainbat musikari igoko dira agertokira. ■

Iker Barandiaran